

2024ko ekainaren 10eko Herriko Kontseiluaren txostena

Hor zirenak: Sabine Etcheverry, Kattalin Duhalde, Anne Marie Darguy, Maité Oxarango, Chantal Echevertz, Philippe Mongabure, Samuel Biscay, Hervé Parachou, Ramuntxo Oteiza, Patrick Barneche, Frédéric Hernandez, Koxe Barbier, Arño Gastambide

Ezin etorria jakinarazi zuena: Karine Perez

1. Denbora ez osoko teknika laguntzaile lanpostu iraunkor baten sortzea (24 oren)

2022ko maiatzaren 31ko erabakiaren arabera, denbora ez osoko teknika laguntzaile lanpostu baten asteko lan denbora aldatu zen langilearen lan denbora antolatzeke galdeari ihardesteko erretreta progresiboa har zezan (24 orenetatik 17h30 orenetara pasatzeko) + denbora ez osoko lanpostu iraunkor baten sortzeko (6h30).

Langilea 2024ko agorrilaren 1ean partituko da erretretara. Proposatu da 24 oreneko denbora ez osoko teknika laguntzaile lanpostu iraunkor baten sortzea 2024ko irailaren 1etik goiti.

Langile berriaren hartzeko prozedura abiatuko da. Aste hondarrean aterako da lan eskaintza, eta hedatu beharko dugu.

Langile kopuruen taula araberan aldatuko da Kudeaketa Zentroko Batzorde Teknikotik iragan ondoan. Herriko Kontseiluak onartu du.

2. Teknika laguntzaile lanpostu ez-iraunkor baten sortzea lana aldi bateko emendatu baita

Teknika laguntzaile lanpostu ez-iraunkor baten sortzeko proposamena lana aldi bateko emendatu baita (Hardoiaren mantentzea eta tindatze obrak).

Proposatu da Gehexan MARTINON hartzea ekainaren 24tik uztailaren 9ra eta Mateo SABALOUÉ uztailaren 8tik uztailaren 19ra.

Herriko kontseiluak onartu du.

3. Herriko Etxea Euskal Elkargoak koordinatu eskaera-taldeari kidetzu da argindarra erosteko

Euskal Hirigune Elkargoa trantsizio energetikoaren koordinatzailea da lurralde mailan, eta 2017az geroztik eskaera-talde bat eramaten du energia hornitzeko.

Eskaera-talde hori beharren bateratzeaz baliatu nahi da Ipar Euskal Herri mailan prezio apalagoak ukaiteko doazkien zerbitzuen kalitate ezin hobea bermatuz, kideen neurrira egin erosketa estrategia finkatuz (bereziki ekoizleengan zuzenki har daitekeen energia berriztagarri eskaintzaren alde).

Eskaintza-deialdi batzordea taldearen koordinatzailearena izanen da (Euskal Elkargoa). Hitzarmen oinarri-emailea eginen da energiaren hornitzeko 2026ko urtarrilaren 1etik goiti.

Herriko Etxea energia hornitzeko kontratupean baldin bada Euskal Hirigune Elkargotik kanpo eta honi kidetzu nahi baldin badu, kontsulta prozedura abiatu baino lehen kidetzu behar du (merkatu baten ondotik heldu den hitzarmen oinarri-emailea). Euskal Elkargoak 2024ko udan abiatuko du kontsulta. Kasu horretan, argindarra hornitu behar zaien guneak Euskal Elkargoak hitzartu merkatuen ondotik jin eremuari lotuko dira, eskaera-taldetik kanpo hitzartu kontratuak bururatu ondoan.

Herriko Etxea Euskal Elkargoak koordinatu eskaera-taldeari kidetzea proposatu da argindarra erosteko.

Herriko Kontseiluak onartu du.

4. Udabiltza – 2024ko dirulaguntzak

Udalbiltza elkartearen xedea da proiektuen garatzea Euskal Herri osoan eta elkarlana sustatzea Euskal Herriko hautetsien artean, baita ere lurraldeko eragileen artean. Kultura haren lan alorretarik bat da, eta karia horretara, Udalbiltzak 2023an “Geuretik Sortuak” proiektuaren bigarren edizioa abiatu zuen.

Hitzarmena 2023an izenpetu zen, eta hitzartu zen dirulaguntza 2 urtetan ukanen zela: 1000 € 2023an eta 1000 € 2024an.

Antzuolako gure adiskideekin film labur bat egiteko parada eman digu, eta aihertar guziek parte hartu dute. Urrian ikusiko dugu filma, parekatzeko egunean.

Komikiak ere egiteko parada eman du baita ere antzerki bat, 2024ko irailaren 13an emanen dena Denen Etxean.

Proposatu da 2024ko 1 000 €-ko dirulaguntza ordaintzea. Herriko Kontseiluak onartu du.

5. Tokiko publizitate araudia

Herriko Kontseilu bakoitzari galdegin zaio ondoko Elkargoko Kontseiluan Euskal Elkargoak erabakiko duen publizitate araudi berriaren norabide nagusiak irakurtzea eta bere iritzia ematea.

2025ean bururatuko den prozesuan gaude. Inportantea da gure gain hartzea eta gure iritzia emanen dugu behar orduan. Denek araudi bera aplikatzen ez duten eremuetan lekuen egoera akta egin da.

Galderak gelditzen dira araudi nazionala baino urrunago joateko xedeari buruz, argizko idazkunen intentsitatea apaltzeko baita ere instalazioetan ondotik egin kontrolei buruz.

Araudi horren apailatzea segitu beharko dugu, gure paisaietan ondorioak ukanen baititu.

6. Ipar Euskal Herriko Bizilekuaren eta Energiaren Etxearen aurkezpena

Ipar Euskal Herriko Bizilekuaren eta Energiaren Etxea aipatzeko puntua. Zerbitzu honen ezagutzea inportantea da. Honek ditu bizitegi pribatuak berritzeko laguntzak koordinatzen.

Laguntza horiek ukaiteko zailak dira, eta horretarako da argibide, kontseilu eta laguntza zerbitzu hori sortu. Power Point dokumentua Herriko Etxearen webgunean ikusten ahalko da.

Gainerako gaiak

- Lurraren erostea: berritasunik ez da bidean diren prozeduretan.
- Herriko Kontseiluaren mozioa oraingo prezioei buruz etxe batzuk prezio guziz gaitzesgarrian salgai ezarriak baitira (ikus mozioa beherago).
- Herriko bestak: herritarren aperitifa, igandearekin, 11:00etan
- Ostiraletan, Arberoari bizia ematea: Puntua Virginie Sabalouek
 - Aiherrak bi ostiral baditu bere gain, uztailaren 26an (Herri kirolak pilota plazan), eta agorrilaren 23an Abaratian (Abarando, besta komiteak antolatua)
 - Dakizuen bezala, Arberoa haranaren balorizazio proiektua sortu zen 2021/2022an hautetsiekin antolatu tailerren ondotik, Atlantikoko eta Pirinioetako Hirigintza Agentziak animaturik.

Ekimen hori Euskal Elkargoko turismo zuzendaritzak laguntzen du eta badu 2 hilabete Master 2an den ikasle bat lanean ari dela proiektuaren obratzeko ardura baitu. Urte bukaeran lehen emaitzak aurkeztuko dira, eta artean, bisita bat antolatu da Hergarai haranean, hango antolaketaren ezagutzeko.

Herriko Kontseiluak 2024ko ekainaren 10eko bilkuran aurkeztu mozia

Dakizuen bezala, gure herrian lurra eta etxeak adimenetik kanpo gelditzen den prezioan saltzen dira.

Erratekoa franko eman duten bi salmenta proposamenen ondotik (lurra eta etxea), beste salmenta bat agertu da prezio eroan.

Beharrik, ez dute denek hala egiten, eta saltzaile batzuk zentzuzkoak gelditzen dira, baina beste batzuek onartezinak diren prezioak praktikatzan dituzte, eta horrek harridura eta laztura sortzen du.

Etxe edo salmenta bakoitzak bere istorioa eta balorea du, baina erregulariki neurrigabeko espekulazioa ikusten dugu.

Tratu-maila horiek **neurritz kanpokoak** dira eta **ezin pagatuzkoak** tokiko jendeentzat, baina ondorioak ere badituzte, hala nola notario-agirietan praktikatu erreferentziazko prezioak finkatzean.

Gainera, segur gara erosleak ez direla behin betiko edo manera iraunkorrean etxe horietan biziko, eta bigarren etxebizitza gisa baizik ez dituztela erabiliko.

Etxe horiek landuak diren laborantza lurren erdian kokatuak baitira, bizikidetzaz arazoak sortuko ditu. Nork saihestuko ditu eremu horietan pixkanaka finkatuko diren erabilera gatazkak?

Herriko Kontseilu gisa eta ditugun ahal xumeekin, entseatzen gara lehentasunez erosteko eskubidearen bidez esku hartzera lur funtsen ukaiteko eta hauek, goiz edo berant, herritarren esku izanen dira molde desberdinetan.

Aldaketa sakon bat ari da sortzen Ipar Euskal Herrian bizitegiaren arazoaz jabetzeko eta horren konpontzeko, eta ekimen horrekin osoki bat egiten dugu.

Gure herrian eta ondoko herrietan gertatzen diren praktika horiek ahalkegarri eta asaldagarri zaizkigu.

Adituak eta batez ere entzunak izateko esperantza dugu.

Aiherrako auzapeza eta Herriko Kontseilua

Bilkura 21:30ean bururatu da

Auzapeza, Arño Gastambide